



LASARTE-ORIAKO UDALAREN ETA ORIAKIDE GURASO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

IDENTIFIKATZEN DIRA

Alde batetik, Agustin Valdivia Calvo, Lasarte-Oriako udaleko alkate gisa (IFZ: P-2009500-F), hitzarmen hau sinatzeko baimena duela, legeak ezarritakoarekin bat etorritik, bere kargua betetz eta esleituak dituen ardurak bere gain hartuz esku hartzen duela.

Eta bestetik, Ainhoa Illarramendi Isasi anderea, bere DNI zenbakia XXX7028XX izanik, Oriartekide guraso elkartearen lehendakaria, eta helbide soziala eta fiskala Lasarte-Oria, Buenos Aires aldapa, 1 zk.an (20160 - Gipuzkoa) du (IFK G20577201). Oriartekide guraso elkarteak Dirulaguntzen Eskatzaileen Udal Erregistroan inskribatua dago 2 inskripzio zenbakiarekin.

Aldeek hitzarmen hau beren izenean eta ordezkatzeko dituzten erakundeenean sinatzeko nahikoa lege-gaitasun dute eta hala aitortzen diote elkarri, eta hori dela eta:

ADIERAZTEN DUTE

I.- Lasarte-Oriako Udalaren borondatea da, EUSKARA Departamentuaren bitartez, Lasarte-Oriako udalerrri barruan kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloko elkarteekin batera udalak betetzen dituen jardueren kudeaketa bateratua errazten duten proiektuak sustatzea, horiek dituzten ezaugarri bereziengatik.

II.- Oriartekide guraso elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean aritzeko interesa du bere helburu sozialaren eremuan jarduera batzuk egitea helburutzat duten kulturaren arloko proiektuak garatzeko eta, bereziki, ikastetxeko gazteen euskarazko gaitasuna eta erabiltzeko ohitura sustatzeko.

Oriartekide guraso elkarteak Lasarte-Oriako udalerrian hainbat eginkizun eta jarduera egiten ditu, oro har herritar guztiei onura dakarkietenak, baita jarduera-programa bereziak ere.

Aipatutako programa horien bidez Lasarte-Oriako udalerrriaren alde eta mesedetan nahikoa lan-esperientzia egin duela frogatu du, baita koordinazio on bat eta seriotasuna ere EUSKARA Departamentuari laguntzeko jarduerak egiteko orduan.

III. Oriartekide guraso elkarteak adierazten du ez dagoela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitako onuradun izaera erdiesteko debekuen artean.

IV.- Udalaren iritziz, elkarte horrek egiten duen lana interes publikokoa da, eta Udal honek euskararen erabilera sustatzeko xedez burutzen dituen jardueren bultzada eta osagarri da.

V.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 2ko 2/2016 Legearen 17.1 artikularen 26) apartatuaren arabera, udalerrien eskumena da «Euskara sustatzeko eta erabiltzeko politikak



normalizatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko planak, lege honen 7. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe».

Hitzarmen honen helburua udalerriko bizilagun-komunitateak dituen premiak edo interesak asetzen lagunduko duten interes publikoko jarduerak sustatzea eta babestea da, eta bereziki, belaunaldi berriek euskara gehiago erabiltzea.

Azken batean, izaera ekonomikoa duen neurri bat da, eta horren helburua, hain zuzen ere, dagokion jarduera burutzeko nahikoa baliabide ez duten herritarrek berek norbanako gisa nahiz elkarte bateko kide gisa, libreki, helburu kolektibo komenigarri eta desiragarri batzuk betetzen laguntzea da.

Gainera, herritarren interesen alde ibilbide luzea eta esperientzia nahikoa egin izana egiaztatua dute partikularki.

VI.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 eta 28.1 artikuluek aukera ematen dute zuzeneko dirulaguntzak emateko hitzarmenak formalizatzeko

VII.- Lasarte-Oriako 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DPE), Alkatetzaren otsailaren 29ko 442/2024 Dekretuaren bidez onartu eta 2024ko apirilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (79 zk.) argitaratutakoan, dirulaguntzen ildo espezifiko hau jasotzen da

VIII.Lortu nahi den helburua erdiesteko xedez jardungo duen erakunde bakoitzak horretan esku hartzeko baldintza orokorrak finkatzeari begira, HITZARMEN hau izenpetu da, eta Dirulaguntzen Ordenantzan xedatutako ondorioetarako, oinarri arautzaileen izaera edukiko du, ondorengo klausula hauekin bat etorritz:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Dirulaguntzaren xedea

Oriartekide guraso elkartearen ondorengo programa hauek eragindako gastuak zati batean ordaintzeko xedez gauzatu da Hitzarmen hau:

1. Ele-meleka DBH1
2. Ele-meleka DBH2
3. Ele-meleka DBH3
4. Ele-meleka DBH4.
5. Ele-meleka 1. Batxilerra.
6. Ele-meleka 2. Batxilerra.
7. Gazte eragileen batzordea DBH1-2
8. Gazte eragileen batzordea DBH3-4
9. Kidetzeak
11. "Euskara gurean"



BIGARRENA.- Indarrean sartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean.

HIRUGARRENA.- Elkartearen betebeharrak.

Hitzarmen honek aurkezten dituen jarduerak garatu ahal izateko, Elkartek hitzematzen du ondorengo betebeharrak beteko dituela hura indarrean dagoen bitartean:

1. Hitzarmen honen xede diren jarduerak burutuko ditu, hitzarmen honekin batera doan I. Eranskinean jasotako xehakapenarekin bat etorritik.
2. Jasotako dirulaguntza hori oso-osorik emandako helbururako xedatuko du.
3. Beharrezkoa den informazioa jakinaraziko du Lasarte-Oriako udalerrri barruan eragindako pertsonak ezagutu dezaten, eta Lasarte-Oriako Udalaren logotipo instituzionala egiten den propaganda guztian barneratuko du.
4. Jarduera horiek guztiak horien hartzaileentzat zentzuzkoa den ordutegi baten barruan garatuko dituzte, ezohiko kasu batzuetan izan ezik, eta halakoetan, Lasarte-Oriako Udalaren berriazko baimena beharko da.
5. Aipatutako jarduera horiek herritartasun onaren arau arruntei jarraiki egingo dituzte, horiek egiten diren bitartean eragozpenik eta arazorik sortu gabe.
6. Teknikariekin eta udaleko gainerako langileekin egingo diren koordinazio, programazio, jarraipen eta ebaluaziorako bileretara joango dira, hitzarmenaren xede diren jardueren jarraipen egokia eta, halaber, horien ebaluazioa egin ahal izateko.
7. Programatutako jarduerak garatzeak eta burutzeak, eta elkarteko kideek beren eginkizun eta jarduerak betetzeak eragiten dituen erantzukizunak bere gain hartuko dituzte.
8. Ikasturteko indarraldia izango duen jarduera-proiektu tekniko-ekonomiko bat aurkeztuko dute proiektuaren hasieran, jasoko diren funtsak zehaztuz, eta halaber, jardueren amaierako txosten bat lotuta utziko dute, hurrengo apartatuetan zehaztuko diren bide formaletatik aurkeztu beharko dena, emandako dirulaguntza justifikatzeko epearen barruan.

LAUGARRENA.- Euskararen erabilerari buruzko konpromisoa

1.- Elkartek euskara edo, bestela, euskara eta gaztelania erabiliko ditu egiten dituen jarduerak eremu, deialdi, publizitate eta abarretan, Euskarari buruzko Udal Ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritik.

Lasarte-Oriako Udalak atal honetan zehazten diren hizkuntza-konpromiso guztiak betetzen direla ikuskatu ahal izango du. Horretarako, kasuan kasu erabakiko du zein neurketa-sistema erabili eta elkartea derrigortua dago eskatzen zaion informazioa ematera.

2.- Jarduera adin guztietako herritarrei zuzendua bada, eta haiekin ahozko harreman zuzena baldin badu, lehenengo hitza euskaraz egingo dio herritarri, eta ondoren herritarrak egindako hizkuntza-hautuaren arabera jarraituko du. Harremana megafonia bidezkoa bada, bi hizkuntzetan egingo da, euskarari lehentasuna emanez.

Haiekin idatzizko harremanik baldin badu, herritarren esku jartzen dituen idatzizko



elementuak euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta, bigarren kasuan, euskarari emango dio lehentasuna.

3.- Jarduera 16 urtetik beherakoei zuzendua bada, euskaraz izango da, ahoz zein idatziz.

BOSGARRENA.- Genero-berdintasunari buruzko konpromisoa.

Elkarteak konpromiso hauek hartuko ditu:

* Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo du dirulaguntza jasotzen duten programa, proiektu edo jarduerak sustatzeko elementu gisa lantzen dituzten kartelen, testuen eta agirien edukietan.

* Bere ahalmenen neurrian, Emakumearen Nazioarteko Egunean eta Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean Udalak garatzen dituen ekimenetan lagunduko dute.

* Genero-ikuspegia lan-ildo gisa barneratuko dute eta Genero Berdintasunaren alorreko balioak defendatu eta sustatuko dituzte dirulaguntza jasotzen duten programa, proiektu eta jardueretan.

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko, dirulaguntzak ematerakoan ezarritako betebeharrak betetzen direla justifikazio-memorian, emandako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen, erakundearen titularren eta plantillaren, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen plantillaren sexuaren arabera informazio banakatua emango da..

SEIGARRENA.- LASARTE-ORIAKO UDALAREN betebeharrak.

Udalak, EUSKARA Departamentuaren bitartez, konpromiso hauek hartuko ditu:

1. Emandako dirulaguntzaren erantzule den Elkartearekin jarraipen eta koordinaziorako bileretarako deia egin eta bertan parte hartuko du.
2. Udalaren baliabideen bitartez programatutako jarduerak ezagutzera ematen lagunduko du.
3. Dirulaguntza izaera duen eta hurrengo apartatuan ageri den ekarpen ekonomikoa egingo du.

ZAZIPGARRENA.- Ekarpen ekonomikoa.

- 1.- Aipatutako erakunde horrek aurkeztutako gastu-aurrekontu orokorra 29.246,00 €-koa da.
- 2.- Lasarte-Oriako Udalak hitzematzen du gehienez ere 34.114,80 €-ko diru-ekarpena egingo duela, aldez aurretik 2026ko ekitaldirako bere Aurrekontu Orokorreko 1 6000.481.01.335.10 kontu-sailean izendatua.

ZORTZIGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzea.

Diru-ekarpen hori honela ordainduko da:

- %60 hitzarmen hau sinatutakoan.
- %40 2027ko martxoan, ardurapeko adierazpena aurkeztuta, non adieraziko baita %60 aplikatu dutela proiektua gauzatzen.



BEDERATZIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.

1.- Justifikazioa aurkezteko gehieneko epea, 2027ko uztailaren 15a izango da eta aipatutako epe hori betetzen ez bada, dirulaguntza justifikatu gabe geratu dela ulertuko da eta, hala egokituz gero, itzuli egin beharko da legez aurreikusitako bideak erabiliz, baldin eta dirulaguntza hori borondatezko bidetik itzultzen ez bada.

2.- Dirulaguntza honen zenbatekoari kasu eginez, justifikatzeko modalitatea Ohiko Justifikazio-kontua izango da, elkarteko lehendakariak edo idazkariak nahiz diruzainak izenpetua, eta gutxienez, ondorengo informazioa jasoko du:

* Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak bete izana justifikatzen duen jarduera-memoria bat, egindako jarduerak eta erdietsitako emaitzak adieraziz.

* Jardueraren gastu eta diru-sarrera guztien zerrenda sailkatu bat, onetsitako aurrekontuan aldeztu aurretik ezarritako banaketarekin bat etorriko dena, hartzekodunaren nortasuna eta agiria, horren zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala egokituz gero, ordainketa-eguna ere adieraziz.

Gainera, zerrenda horrekin batera, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan barneratuta, faktura guztien edo balio frogagarria edo administrazio-eraginkortasuna duten agiri baliokide guztien fotokopia konpultsatua gehituko da eta, hala egokituz gero, baita ordainketa egin izana egiaztatzen duten agiriak ere.

* Dirulaguntza jaso duen jarduera finantzatu duten gainerako diru-sarrera, baliabide edo diru-laguntzei buruzko xehetasuna, horien zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

3.- Aurkeztutako justifikazioa egiaztatzeko beharrezko jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango du Lasarte-Oriako Udalak; eta "moneta-unitateen" laginketa-teknikak erabiliz, egoki ikusten dituen frogagiriak egiaztatu ahal izango ditu, dirulaguntza egoki aplikatu izanari buruzko arrazoizko ebidentzia erdietsi ahal izateko, eta horri begira, aukeratutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

4.- Hitzarmen honek aipagai duen jarduera burutzearekin zuzenean loturiko frogagiriak bakarrik onartuko dira. Ez da onartuko hitzarmen honen xede den jardueraren programak berezkoak ez dituen otordu, bazkari, ospakizun, elikagai eta antzeko izaera duten beste batzuen justifikaziorik.

5.- 2026-2027an garatu beharreko programa eta horren aurrekontua, hitzarmen honen eranskin gisa datorrena, oinarritzko eredu gisa erabiliko da justifikazioan.

6.- Dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako eskaera hori berridatzi egin dezake baldin eta azkenean onartu den dirulaguntza hasierako eskabide horretan ageri dena baino txikiagoa bada, bere konpromisoak eta jarduerak benetan emandako diru-zenbatekoaren arabera egokitzearren.

7.- Dirulaguntzaren helburuak bete ondoren, eta hitzarmeneko programaren batean aplikatu ez diren gerakinak erdietsi baldin badira, proiektu horretan bertan sortu ahal izan diren gastu gehigarrietarako erabiltzeko baimena eskatu ahal izango dio Udalari, baita izaera bera edo antzekoa duten eta dirulaguntza jaso dezaketen beste jarduera batzuetarako ere.

**HAMARGARRENA.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak**

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira ezarritako epearen barruan egiten diren guztiak eta dirulaguntza jasotzen duen erakundearen ohiko funtzionamenduak eragiten dituenak, betiere Lasarte-Oriako udal mugartean eta hitzarmen honen xede den epearen barruan. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskurapen-kostua inola ere ezin daiteke izan merkatuko balioa baino handiagoa.

HAMAIKAGARRENA.- Bermeen erregimena

Onuradunari ez zaio eskatuko bermeak aurkez ditzala, Hitzarmen honen arabera bere gain hartu dituen betebeharren erregimena ez betetzeko arriskurik aurreikusten ez delako.

HAMABIGARRENA.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza beste dirulaguntza batzuekin bateragarria izango da, betiere emandako zenbateko osoa jarduera horretarako aurrekontuan sartutako diru-kopuruaren % 100 gainditzen ez bada, eta hori gertatzen bada, dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da dirulaguntza.

HAMAHIRUGARRENA.- Zergekiko betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiketan egunean dagoela egiaztatzea. Elkarreragingarritasuna

Hitzarmena sinatzen den unean, eta ordainketa jaso aurretik, hitzarmena sinatzen duen elkarteak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuko da, horrez gain Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da.

Lasarte-Oriako Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) bidez egiaztatzeko:

- AGE- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia - Nortasun Datuen Kontsulta – Egiaztapena

.- Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Ogasuna, Nafarroa edo ZAEA: zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta

.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrearekiko betebeharrak egunean ordainduta kontsultatzeko zerbitzua

AGE: Justizia Ministerioa: Sexu-delituengatik aurrekari penalik eta aurrekaririk ez dagoen kontsulta zerbitzua (soilik, adingabeekin lan egiten duten elkartearen ordezkarien datuak egiaztatzeko)

Datu horiek kontsultatu edo bildu ez direla uste izanez gero, ordezkariak arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela (EE Erregelamenduaren 21. artikulua). 2016/679 Datuak Babesteari buruzkoa), hori egiaztatzen duen dokumentua aurkezteaz gain.

☐ Ez dago aurka.

☐ Bai, aurka dago eta dokumentazioa aurkeztuko du

Erakundeak egunean izan beharko ditu Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak, Lasarte-



Oriako Udala eta Gizarte Segurantzarekikoak barne. Horretarako, aipatutako erakundeek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, udalarena izan ezik, ofizioz egiaztatuko baitu, hitzarmen hau sinatu baino sei hilabete lehenago.

Bi sinatzaileek hitzematen dute Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa beteko dutela.

Sekretu profesionalaren betebeharra era guztietako informazio konfidentzialetara zabaltzen da, hori erdietsi den modua edozein izanik ere. Betebehar honek ez du inolako denbora-mugarik, eta zerbitzu profesionalen prestazioa amaitu ondoren edo erabiltzailea hil ondoren ere bere horretan iraungo du.

Egiten diren jardueretan, erabiltzaileei jakinaraziko zaie erdietsitako informazioaren konfidentziasuna gordetzeko eskubidea dutela eta, halaber, zein diren sekretu profesionalaren mugak.

HAMALAU GARRENA.- Konfidentziasunaren betebeharra. Datu pertsonalen babesa. Gardentasuna.

Hitzarmenak irauten duen bitartean, eta haren ondoren, hitzarmen honen ondorioz erakunde sinatzaileek erabilitako eta helarazitako informazioa Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena) arautuko da.

Hitzarmena argitaratuko da Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean eta Lasarte-Oriako udalaren Gardentasun atarian.

HAMABOS GARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena

1.- Hitzarmen hau jarraitzeko eta kontrolatzeko, alderdi jarduleek elkarren arteko adostasunez erakunde parte-hartzaileek izendatzen dituzten ordezkariak osatutako batzorde bat eratu ahal izango dute, eta egoki jotzen duten maiztasunez egingo dituzte bilerak

Hitzarmen honen garapenean sor litezkeen gorabehera guztiak ezagutzeko eta horiek ebazteko ahalmena izango du batzorde honek.

2.- Hala ere, barne kontrola egokituko zaie Udal kontu-hartzailetzari eta kanpoko kontrol-organoei.



HAMASEIGARRENA.- Ez betetzeagatiko erantzukizuna.

Justifikaziorik ez badago, jasotako eta justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli beharko dira, eta ez da dirulaguntza berririk emango.

Dirulaguntzen onuradunari dagozkion egiaztapen-jarduerak egin beharko zaizkio, eta helburu bererako beste dirulaguntza batzuk lortu baditu dirulaguntza eman duen organoari jakinarazi beharko dio.

Lasarte-Oriako Udalak beretzat gordetzen ditu laguntzen eta dirulaguntzen espedientei buruz egokitzen jotzen dituen gainbegiratze-eginkizunak. Nolanahi ere, behar ez bezala lortu, erabili edo justifikatu izanaren zantzurik ikusten bada, indarrean dagoen legerian aurreikusitako neurri egokiak hartu ahal izango ditu.

Era berean, dagozkion legezko prozeduren bidez, emandako laguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du.

Erakunde onuradunak dirulaguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteei eta administrazio-zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren IV. Tituluan eta araudian xedatutakoa beteko da.

HAMAZAZPIGARRENA.- Bertan behera uzteko eta azkentzeko arrazoiak.

Ondorengo arrazoiak hitzarmen hau amaiaraztea eta baliogabetuta uztea eragin dezakete

- a) Hitzarmen honen xede diren eta jaso diren diru-ekarpenak emandako helburu horretarako ez erabiltzea Elkarateak
- b) Erakundearen jarduerak behin betiko bertan behera uztea, edota ekitaldiaren barruan sei hilabetetik gorako epe batez horiek bertan behera uztea
- c) Hitzarmen honen xede diren ekarpen ekonomikoen kontura egindako gastuak dagokion dokumentazioaren bitartez justifikatzeko betebeharra ez betetzea, eta horrez gain, indarreko legeriaren arabera urratu diren erantzukizunak eskatu ahal izango dira
- d) Hitzarmen honetan jaso diren hizkuntza-konpromisoak behin eta berriz ez betetzea
- e) Zabalkundea emateko xedez hitzarmen honetan xedatutako neurriak hartu beharra ez betetzea
- f) Eta oro har, agiri honen arabera erakundeak bere gain hartu dituen obligazioen beste edozein ez-betetze, baldin eta oso larritzat jotzen bada
- g) Lasarte-Oriako Udalari egotzi ezin zaion arrazoi bategatik hitzarmen hau amaiarazteko espedientea abiarazten bada, jasotako diru-zenbatekoak itzultzeko eskatuko dute zerbitzu ekonomikoek eta, hala egokituz gero, baita berandutza-interesak ere dagokion lege-interesaren arabera

HEMEZORTZIGARRENA.- Itzulketa

1.- Onuradunak helburu, jarduera eta proiektu horiek guzti-guztiak bete beharko ditu, Hitzarmen honen oinarri diren jokabideak hartu eta hori dela eta bere gain hartutako konpromisoak bete.

2.- Proportzionaltasunaren irizpidea kontuan izanik, dirulaguntza emateko oinarri izan ziren helburu, jarduera, proiektu edo jokabideen balizko urraketak sailkatuko dituztenak, eta jasotako zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli behar den edo zenbateko hori osorik edo horren zati bat kobratzeko eskubidea galdu den erabakiko dutenak, eta horiez gain, Dirulaguntzen Udal Ordenantzan izaera orokorreaz ezarrita daudenak.



HOGEGARRENA.- Araudi Erregulatzailea.

Ondoren aipatzen diren araudi erregulatzaileen mende egongo da hitzarmen honen xede diren laguntzak ematea:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.

- 130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituen.

-19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa

Dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza, Udal Batzarrak 2011ko maiatzaren 12an behin betiko onetsia (126 zk. GAO, 2011ko ekainaren 29koa

Lasarte-Oriako Udalaren 2024-2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Hitzarmen honetan jasotako klausulak



I. ERANSKINA

Hitzarmen honetan jasotako zerbitzu eta jardueren deskribapena.

LEHEN KLAUSULAN jasotako jarduerekin bat etorritik, Elkartek hitzematen du 2026-2027 ikasturtean ondorengo jarduerak hauek burutuko dituela:

1.- Elemeleka DBH1.

Gazteen hizkuntza-sozializazioan eragiteko, DBH1en euskara gertu duten gazteei protagonismoa eman nahi zaie, ahalduntzeko urratsak eman, eta beraiek besteentzat erakargarri bihurtzeko. Era berean, besteei giro horretara hurbiltzeko aukerak emango zaizkie eta motibatu egingo dira. Bi hezitzaile arituko dira 6 taldeetan eta bakoitzean 6 ordu eskainiko dituzte taldeko. Denera 36 ordu

* Gehieneko aurrekontua guztira: 2.436,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 2.436,00 €

2.- Elemeleka DBH2

Gazteen hizkuntza-sozializazioan eragiteko, DBH2an euskara gertu duten gazteei protagonismoa eman nahi zaie, ahalduntzeko urratsak eman, eta beraiek besteentzat erakargarri bihurtzeko. Era berean, besteei giro horretara hurbiltzeko aukerak emango zaizkie eta motibatu egingo dira. Bi hezitzaile arituko dira 8 taldeetan eta bakoitzean 6 ordu eskainiko ditu taldeko. Denera 48 ordu

* Gehieneko aurrekontua guztira: 2.088,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 2.088,00 €

3.- Elemeleka DBH3

Gazteen hizkuntza-sozializazioan eragiteko, DBH3n kultur transmisioaren inguruko lanketa egingo da Elemelekako saioetan. Bi hezitzaile arituko dira 8 taldeetan eta bakoitzean 6 ordu eskainiko ditu taldeko. Denera 72 ordu.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 2.436,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 2.436,00 €

4.- Elemeleka DBH4

Gazteen hizkuntza-sozializazioan eragiteko, DBH4n kultur transmisioaren inguruko lanketa egingo da Elemelekako saioetan. Bi hezitzaile arituko dira 8 taldeetan eta bakoitzean 9 ordu eskainiko ditu taldeko. Denera 72 ordu.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 2.436,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 2.436,00 €



5.- Elemeleka 1. Batxilerra.

Batxilergoan hizkuntza-ohituren gaia izango da ardatza eta bi norabidetan lan egingo da: euskaraz egiteko ohitura duten edota izan dezaketenak ahalduntzea eta euskaraz egiteko ohitura edo asmorik ez dutenen errespetuzko jokabideak lantzea. Hezitzaile bi arituko dira 4 taldeetan eta bakoitzean 6 ordu eskainiko ditu taldeko. Denera 24 ordu. Horrez gain, kale-neurketa ere egingo du talde honek.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 2.360,80 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 2.360,80 €

6.- Elemeleka 2. Batxilerra.

Batxilergoan hizkuntza-ohituren gaia izango da ardatza eta bi norabidetan lan egingo da: euskaraz egiteko ohitura duten edota izan dezaketenak ahalduntzea eta euskaraz egiteko ohitura edo asmorik ez dutenen errespetuzko jokabideak lantzea. Hezitzaile bi arituko dira 4 taldeetan eta bakoitzean 6 ordu eskainiko ditu taldeko. Denera 24 ordu. Horrez gain, kale-neurketa ere egingo du talde honek.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 1.044,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 1.044,80 €

7.- Gazte eragileen batzordea DBH1-2

Hala nahi duten DBH1-2 gazteei euskararen egoeraz jakitun izateko tresnak emango zaizkie, institutuan hizkuntza-ohituren aldaketaren talde dinamizatzaile bilakatzeko. Bi hezitzaile arituko dira taldean, 1,5 orduko 25 saio eskainiko dituzte ikasturtean. Denera 75 ordu.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 4.032,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 4.032,00 €

8.- Gazte eragileen batzordea DBH3-4

Hala nahi duten DBH3-4 gazteei euskararen egoeraz jakitun izateko tresnak emango zaizkie, institutuan hizkuntza-ohituren aldaketaren talde dinamizatzaile bilakatzeko. Bi hezitzaile arituko dira taldean, 1,5 orduko 25 saio eskainiko dituzte ikasturtean. Denera 75 ordu.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 4.032,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 4.032,00 €



9.- Kidetzeak

Institutuko ikasle helduenak gazteenen hizkuntza erreferente izatea lortu nahi da. Hizkuntza-ohiturei begirako aholku zehatzak emango dizkiete, konpromiso zehatzak eskatu eta laguntza eskaini. Hezitzaile bat arituko da 10 taldetan, ordu beteko 5 saio eskainiko dizkio talde bakoitzari. Denera 50 ordu.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 2.900,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 2.900,00 €

10.- Pertsonaia ezagunen bisitak

Ikasleek eurentzat erreferenteak diren pertsonak zuzenean ezagutzea da helburua, euskaraz aritzen direnak eta ikasleentzat eredu izan daitezen.

* Gehieneko aurrekontua guztira: 2.000,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 2.000,00 €

11.- "Euskara gurean" murala

Euskaraldiaren dinamikaren baitan euskararen normalizazioaren aldeko mezua duen murala egitea eta hasieratik ikasleak inplikatzeari

* Gehieneko aurrekontua guztira: 3.450,00 €

* Finantzaketa: Udalak gehienez ere ondoko € arte finantzatuko du: 3.450,00 €

AURREKONTUAREN LABURPENA

<u>Gastuen Aurrekontua</u>		<u>Diru-sarreraren Aurrekontua</u>	
* Gastu Guztiak	29.246,00 €	* Bestelako sarrerak	00,00 €
* Justifikaziorik gabe (%0)	0,00 €	* Udal dirulaguntza	29.246,00 €
		* Bestelako dirulaguntzak	
GUZTIRA	29.246,00 €	GUZTIRA	29.246,00 €

Eta, horren froga eta adostasun gisa, agiri hau elektronikoki izenpetu dute.

Oriartekide guraso elkarteak

Alkatea

Ainhoa Illarramendi Isasi andrea

Agustin Valdivia Calvo jauna

Nire aurrean:
Lasarte-Oria Udaleko jarduneko idazkaria

Sin.: Angel Uranga Churruca

